



Zu ere kutsatzaile?

Gai honekin zerikusia duten arloak

- NATUR ZIENTZIAK.
- GIZARTE ZIENTZIAK.
- TEKNOLOGIA.

HELBURUAK

- Eguneroko energia-erabileren ondorioz, aldaketa klimatikoan eragin handiena duen karbono dioxido gasaren ekoizpena kalkulatzeko.
- Hori murrizteko neurriak hartzen laguntzea.

Ariketaren prozedura

Zure familia urtebetean zenbat CO₂ ekoizten duen kalkulatu ahal izateko, eskuineko taula osatzea proposatzen dizugu.

Bestalde, etxeko automobilak sortutako CO₂ kopurua zehatzago kalkulatzeko behaldekotaulaz baliatuko zarete. Taularen lehen zutabeetan automobil desberdinek litro bat erregairekin egin ditzaketen kilometro kopuruak daude. Lehendabizi, bilatu 1. zutabeen zuen automobilaren kasura gehien hurbiltzen den kopurua. Gero, bila ezazue 1. lerro horizontalean zuen automobilak urtean egiten duen kilometro kopurura gehien hurbiltzen den zenbakia. Kontsumoa adierazten duen lerroa eta urtean egindako kilometroen zutabea elkar gurutzatzen diren lekuko zenbakiak zuen automobilak urtean gutxi gorabehera zenbat CO₂ ekoizten duen adieraziko dizue.

CO₂ jaulkipenak

Errekuntza/jarduera	Erabilitako unitatea	Zenbat CO ₂ unitateko	Urteko jaulkipenak (kg)
Elektrizitatea	kw.h	0,41 kg/kw.h	
Gasolina/gasolia	litro	2,6 kg/litro	
Gas naturala	m ³	1,7 kg/m ³	
GLP (propanoa, butanoa)	kg	2,7 kg/kg	
Automobila	litro	2,6 kg/litro	
GLP-z dabilen autoa	litro	1,5 kg/litro	
Hegazkina	km	0,25 kg/km	
Hiriko autobusa	km	0,06 kg/km	
Hiri arteko autobusa	km	0,05 kg/km	
Trena edo metroa	km	0,03 kg/km	
Taxia	km	0,4 kg/km	
Zaborra	kg	3 kg/kg	

JAILKIPENAK GUZTIRA

Kotxez bidaiatzen sortzen ditugun CO₂ kilogramoak

zenbat km litroko	URTEAN ZEHAR EGINDAKO KILOMETRO KOPURUA							
	5.000	10.000	15.000	20.000	25.000	30.000	35.000	40.000
4	3.250	6.500	9.740	13.000	16.250	19.500	22.750	26.000
6	2.170	4.340	6.500	8.690	11.050	13.000	15.200	17.400
8	1.620	3.250	4.900	6.500	8.140	9.750	11.400	13.000
10	1.300	2.600	3.900	5.200	6.500	7.800	9.100	10.400
12	1.080	2.170	3.250	4.340	5.520	6.500	7.600	8.700
14	926	1.850	2.780	3.720	4.620	5.560	6.500	7.440
16	810	1.620	2.440	3.250	4.060	4.860	5.690	6.500
18	722	1.450	2.160	2.890	3.620	4.340	4.990	5.770
20	650	1.300	1.950	2.600	3.250	3.900	4.550	5.200
22	590	1.180	1.770	2.360	2.910	3.560	4.130	4.730

■ Zer iruditzen zaizue lortutako CO₂ kopurua?

■ Uste duzue zerbaitegin beharko zenuketela kopuru hori murrizteko? Zer egin daiteke?